

ESTATUTUAK

LEHENENGO KAPITULUA

IZENA

1. artikulua.- 1.985 ko Maitzaren 5ean inskribaturiko eta Erregistro zenbakia 1.608 duen irabazteko asmorik gabeko LEIZARRA MUSIKA ESKOLAKo Elkartearen Estatuak ekainaren 22ko 7/2007 Legea eta martxoaren 22ko 1/2002 lege Organikoan, Elkarteei buruzkoa, ezartzen duenaren arabera izan dira aldatuak eta gaurkotuak 2008ko Urriaren 29an egindako ez ohiko Batzar Orokorrari.

Aipatutako elkarteak honako araubidea izango du: Elkarteen Legea, estatutu hauek berak (Legearen aurkakoak ez badira), bere Zuzendaritza Batzordeak behar bezala hartutako erabakiak (Legearen edota estatutuen aurkakoak ez badira) eta Eusko Jaurlaritzak xedatzen dituen arauak (azken hauek osagarri besterik ez dira izango).

ELKARTEAREN HELBURUAK

2. artikulua.- Elkarthe honen helburuak honako hauek dira:

Helburu horiek lortzeko, jarduera hauek egingo dira, ezarritako legezko betekizunak bete ondoren: musika arteen irakaskuntza, zabalkundea eta sustapena, izan ditzakeen adar guztietan, eta instrumentu guztiena. Halaber, Aretxabaletako musika alorreko ohitureen kontserbazioaren onerako, hobetu eta garatzeko sustatu daitezkeen, musikarekin zerikusia duten, irabazirik gabeko (folklore, dantza, balleta etab) inizatiba guztiak.

Aurreko idatz-zatian azaldutako jarduerak gorabehera, elkarteak, bere xedeak betetzeko, honako hauek egin ahalko ditu:

- Helburuak betetzeko edo horretarako baliabideak biltzeko era guztietako jarduera ekonomikoak gauzatu.
- Era guztietako ondasunak edozein tituluren bidez eskuratu eta eduki, eta mota guztietako egintzak eta kontratuak egin.
- Nolanahiko ekintzak burutu, betiere legeekin eta Estatutuekin bat etortzekotan.

ELKARTEAREN EGOITZA

3. artikulua.- Elkartea honen egoitza helbide honetan egongo da: Kalea: Santa Kurtz, 20 zenbakia -Arkupe Kultur-Etxe, Aretxabaletan.

Elkartek beste lokal batzuk ere eduki ditzake Autonomia Erkidegoan, Batzar Orokorrak hala erabakitzen badu.

LURRALDE-EREMUA

4. artikulua.- Elkartea honek nagusiki lurralde-eremu honetan gauzatuko ditu bere zereginak: Aretxabaleta.

IRAUPENA ETA DEMOKRAZIA-ARAUUA

5. artikulua.- Elkartea iraunkorra izateko eratu da, eta IV. kapituluaren esaten den bezala ezohiko batzar orokorrean hartutako erabaki bidez baino ezingo da desegin, edo legeetan aurreikusitako arrazoiren batengatik.

Elkartearen funtzionamendua eta barne-antolamendua demokratikoa izango da, eta pluraltasuna erabat errespetatuko da. Erabat deusezak izango dira elkartzeko oinarritzko eskubidearen alderdietako edozein betetzen ez duten itunak, estatutu-xedapenak eta erabakiak.

BIGARREN KAPITULUA

AGINTE ETA ADMINISTRAZIO-ORGANOAK

6. artikulua.- Elkartearen agintea eta administrazioa kide anitzeko organo hauen esku egongo da:

- Bazkideen Batzar Orokorra izango da organo gorena.
- Zuzendaritza Batzordea izango da kide anitzeko zuzendaritza-organoa iraunkorra.

BATZAR OROKORRA

7. artikulua.- Batzar Orokorra bazkide guztiek osatzen dute, eta organo honen bidez adierazten dira bazkideen nahiak.

Batzar Orokorraren ahalmenak:

- a) Elkartearen jarduera-plan orokorra onartzea.
- b) Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertu eta onartzea.
- c) Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onartzea.

- d) Estatutuak aldatzea.
- e) Elkartea desagitea.
- f) Lehendakaria, idazkaria, diruzaina eta kide anitzeko aginte-organoko gainontzeko kideak, baldin badaude, izendatzea eta kargutik kentzea.
- g) Beste elkarre batzuekin batera federazioak eta konfederazioak osatzea, edota horietatik ateratzea.
- h) Ondasun higiezinak erabili edo besterentzeko erabakiak hartzea.
- i) Aginte-organoko kideei ordaindu egin behar zaiela erabakitzea.
- j) Kuota arruntak eta bereziak ezartzea. Ahalmen hau, hala ere, Batzar Orokorrak aginte-organismoari eskuordetu diezaioke horretarako bereziki hartutako erabakiaren bidez.
- k) Bazkideak behin betiko kanporatzeko erabakia hartzea.
- l) Beste organo sozialen bati esleitu gabeko beste edozein eskumen.

8. artikulua.- Batzar Orokorrak ohiko bilkurak eta bilkura bereziak egingo ditu.

9. artikulua.- Batzar Orokorrak gutxienez urtean behin egin beharko du ohiko bilkura: lehenengo hiruhilekoan izango da, 7. artikuluko a), b) eta c) idatz-zatietan zehaztutako erabakiak hartze aldera.

10. artikulua.- Batzar Orokorra Zuzendaritza Batzordeak erabakitzen duenean bilduko da bilkura berezian, bere ekimenez edota bazkideen % 25(e)k eskatu duelako. Bilkura eskatzeko arrazoiak eta helburuak azaldu beharko dira baina, nolanahi ere, honako gaiak aztertzeko eta erabakitzeko, bilkura berezia egingo da:

- a) Estatutuak aldatzeko.
- b) Elkartea desagiteko.

11. artikulua.- Batzar Orokorra biltzeko deialdiak idatziz egin behar dira, eta bilkurak egingo diren tokia, eguna eta ordua adierazi beharko dira, bai eta gai-zerrenda ere, eztabaidatuko diren gaien aipamen zehatzarekin. Deialdia egiten denetik gutxienez hamabost egun pasatu beharko dira bilkura lehen deialdian egiteko. Hala badagokio, bigarren deialdiaren data eta ordua ere adieraz daitezke. Dena dela, deialdi batetik bestera gutxienez ordu erdiko tarte utzi beharko da.

Batzar orokorrak, arruntak nahiz bereziak, lehenengo deialdian balio osoz eratuta geratuko dira botoa emateko eskubidea duten elkartekideen herena bertaratzen bada; eta bigarren deialdian, botoa emateko eskubidea duten elkartekideen kopurua edozein dela ere.

12. artikulua.- Batzar Orokorraren erabakiak gehiengo soilez hartuko dira, hau da, bertaratuen nahiz ordezkatuak baiezko botoak ezezkoak baino gehiago direnean. Alabaina, bertaratuen edo ordezkatuak gehiengo kualifikatua beharko da (baiezko botoak baliozko botoen erdia baino gehiago izatea, alegia) erabaki hauek hartzeko :

- a) Elkartea desagitea.
- b) Estatutuak aldatzea.
- c) Ondasunak erabili edo besterentzea.
- d) Maileguak kontratatzea.
- e) Ordezkaritza-organoko kideei ordaintzea.

Botazio egiteko modua nominala edo sekretua izango da. Azken kasu honetan beharrezkoa izangoda, Lehendakariak proposatzea edo bildutakoak %50ak eskatzea. Lehendakariak kalitatezko botua edukiko du, botazioetan enpate kasua ematen denean.

ZUZENDARITZA BATZORDEA

13. artikulua.- Zuzendaritza Batzordea da Batzar Orokorraren xedapen eta zuzentzauei jarraikiz elkarrearen interesak kudeatu eta ordezkatzeko dituen organoa. Elkarrekideek baino ezingo dute osatu ordezkari-organoa.

Zuzendaritza Batzordeak osatuko dutenak honakoak izango dira: LEHENDAKARIA

LEHENDAKARI-ORDEA

IDAZKARIA

DIRUZAINA

BI BOKALAK

Zuzendaritza Batzordeak beharrezko jotzen duenean, botuarekin baina ahotsik gabe, Musika Eskolako zuzendaria ere Batzordekide izango da, aholkulari eta informatzaile izaera izango duelarik.

Bokalak ordezkatzeko ditzuztenak:

- Aretxabaletako Udalak batzar orokor baten aukeratutako kide bat.
- Irakasleen Klaustroko kide bat.

Gutxienez hilean behin aldiz bildu beharko dute, eta elkarrearen jarduerak bideratzeko beharrezkoa den guztietan.

14. artikulua.- Batzar Orokorrak hautatuko ditu Zuzendaritza Batzordeko kargudunak. Kargu horiek bi urterako izendatuko dira. Kargudun berbera behin eta berriro hautatu ahal izango da. Aipaturiko kargu hauek urtero berrituko dira. Lehen txandan kideen %50a berrituko da (LEHENDAKARIA ETA IDAZKARIA) eta bigarreanean gainontzeko guztiak (LEHENDAKARI-ORDEA ETA DIRUZAINA).

15. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, ezinbestean baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Adin nagusikoa izatea, eskubide zibil guztien jabe izatea, eta indarrean dauden legeetan bildutako bateraezintasun-arrazoirik ez izatea.
- b) Estatutuetan aurreikusitako moduan izendatua izatea.
- c) Elkarteko bazkidea izatea.

16. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, lehendabizi, Batzorde Nagusiak izangaia hautatu behar du eta, gero, izendatu horrek kargua onartu behar du.

Zuzendaritza Batzordeko kideen dieta eta gastuak ordaintzea erabaki dezake Batzar Orokorrak.

17. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideek kasu hauetan utziko dituzte karguak:

- a) Agintealdia bukatzen denean.
- b) Dimititzen baldin badute.
- c) Bazkide izateari uzten diotenean, edo kargua betetzeko ezintasun-arrazoiak dituztenean.
- d) Estatutu hauetako 16. artikuluaaren arabera, Batzar Orokorrak kargua baliogabetzea erabakitzen duenean.
- e) Hiltzen baldin badira.

“a)” idatz-zatian agertzen dena baldin bada kargua uzteko arrazoia, Zuzendaritza Batzordeko kideek jardunean jarraituko dute lehenengo batzar orokorra egin arte. Batzar horretan aukeratuko dira kargudun berriak.

b), c), d) eta e) idatz-zatietan agertzen dena baldin bada arrazoia, hutsik gelditutako kargua betetzeko norbait behin-behingo izendatuko du Zuzendaritza Batzordeak, eta Batzar Orokorrak erabakiko du izendapena onetsi ala ez. Ezetsi egiten badu, behar diren kargu izendapenak egingo ditu.

Organo honen osaeran egiten diren aldaketa guztien berri emango zaio Elkarteen Erregistroari.

18. artikulua.- Honako hauek dira Zuzendaritza Batzordearen zereginak:

- a) Elkaratearen eguneroko kudeaketaz arduratzea, Batzar Orokorraren jarraibideekin bat etorritik eta haren kontrolpean eta hark emandako akordioak beteaz.
- b) Elkaratearen helburuak lortzeko Erakundeekin behar dituen harremanak edukitzea.
- c) Estatutuak bete ditzala zaintzea.
- d) Elkarateak aurrera eramango dituen ekintzen egitaraua egitea.
- e) Musika taldeen sorreraren alde egitea eta Musikal arloan sortzen diren iniziatiba guztien alde.
- f) Leizarra Musika Eskolako Zuzendari Teknikoa aukeratu.
- g) Gastu eta sarreraren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera-orria Batzar Orokorrari aurkeztea, hark onar ditzan.
- h) Batzar Orokorraren bileretako gai-zerrendak egitea, eta ohiko nahiz ezohiko batzar orokorretarako deialdiak egitea erabakitzea.
- i) Bazkideek egiten dituzten proposamen eta iradokizunei erantzutea eta horien inguruan hartu beharreko neurriak hartzea.
- j) Estatutu hauetako aginduak interpretatzea eta Estatutuetako hutsuneak betetzea, betiere elkarteen inguruan indarrean dauden legeekin bat etorritik.
- k) Batzar Orokorrak berariazko erabakien bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak.
- l) Barne Araudiko aldeketak proposatzea Batzar Orokorrean onartzeko.

19. artikulua.- Zuzendaritza Batzordearen bilkurak lehendakariak erabaki edo batzordekide batek eskatzen duen bakoitzean egingo dira. Bilkurako buru lehendakaria izango da, ez balego, lehendakariordea; eta horien faltan, batzordekide zaharrena.

Batzordeak hartutako erabakiak baliozkoak izateko, biltzen diren batzordekideen gehiengoak aldeko botoa eman behar du. Horretarako, gutxienez batzordekideen kopuruaren erdiak egon behar du bilkuran. Berdinketarik egonez gero, lehendakariaren kalitateko botoa izango da erabakiko duena.

Idazkariak bilera-aktak egingo ditu eta akta horiek gero dagokion liburuan transkribatuko dira.

KIDE BAKARREKO ORGANOAK **LEHENDAKARIA**

20. artikulua.- Lehendakariak beregain hartuko du elkaratearen legezko ordezkaritza, eta Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrak hartutako erabakiak gauzatuko ditu. Era berean, aipaturiko bi organo horietako lehendakaria izango da.

21. artikulua.- Lehendakariak honako hauek denak egiteko ahalmena izango du:

- a) Zuzendaritza Batzordearen eta Batzar Orokorraren bilera-deiak egin, bilerak bukatutzat eman, bileretan sortzen diren eztabaidak bideratu, eta boto-berdinketa gertatuz gero kalitate-botoarekin erabakitzea.
- b) Elkaratearen ekintzen egitasmoa Zuzendaritza Batzordeari proposatzea eta elkaratearen zereginak bultzatu eta bideratzea.
- c) Baliozki erabakitako ordainketak egiteko agintzea.
- d) Sortzen diren premiazko arazoak konpontzea, eta egiten den lehenengo bilkuran Zuzendaritza Batzordeari horren berri ematea.
- e) Batzar Orokorrak berariazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak.

LEHENDAKARIORDEA

22. artikulua.- Lehendakariordeak lehendakariari lagunduko dio, eta lehendakariak aldi batean bere kargua bete ezin badu, lehendakariordeak ordezkatzeko du. Era berean, lehendakariak berariaz eskuordetzen dizkion ahalmen guztiak izango ditu.

IDAZKARIA

23. artikulua.- Idazkariari dagokio, zehazki, elkaratean sartzeko eskabideak jaso eta izapidetzea, fitxategia eta Bazkideen Erregistro Liburua zaintzea, eta Akta Liburuaren zaintzaren eta idazketaren ardura izatea.

Era berean, elkarateen arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzeaz arduratuko da, erakundearen agiri ofizialak zainduz, elkarateko liburuen eta artxiboen edukia egiaztatuz eta Zuzendaritza Batzordeko izendapenen eta egoitza sozialaren aldaketen berri emateko egin beharreko jakinerazpenak eginez agintari eskudunari.

DIRUZAINA

24. artikulua.- Egindako diru-sarrera eta ordainketen berri emango du diruzainak, eta diru-sarrera eta gastuen urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera ere jakinaraziko du. Horiek guztiak Zuzendaritza Batzordeari aurkeztu behar dizkio, eta horrek Batzar Orokorrari, hark onartu ditzan.

HIRUGARREN KAPITULUA

BAZKIDEAK: ONARTUAK IZATEKO BALDINTZA ETA PROZEDURAK, ETA BAZKIDE- MOTAK

25. artikulua.- Elkartekide izan nahi eta baldintza hauek betetzen dituzten pertsona fisiko guztiak izan daitezke elkarteko bazkide:

- Adin nagusikoa edo adingabe emantzipatua izatea, norberaren eskubideak erabiltzeko inolako lege-baldintzaren menpe ez egotea eta ebazpen judizial irmoaren bidez eskubideen erabilera mugatuta ez edukitzea.

Pertsona juridikoen kasuan, organo eskudunaren berariazko rabakia behar da. Erabaki horretan adieraziko da elkarteko bazkide izateko borondatea eta zein izango diren pertsona juridikoaren ordezkariak.

26. artikulua.- Elkartean sartu nahi duenak idatziz aurkeztu beharko dio lehendakariari bere eskabidea, bi bazkideren sinadurarekin. Lehendakariak eskaeraren berri emango dio Zuzendaritza Batzordeari, eta horrek erabakiko du eskabidea egin duena elkartean onartu ala ez. Erabakiaren aurkako gorako errekurtsioa jar dakioke Batzar Orokorrari.

BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

27. artikulua.- Elkarteko bazkide guztiek honako hauek denak egiteko eskubidea dute:

- 1) Elkarteei buruzko Legearen edo Estatutuen kontrako erabaki eta jardunak inpugnatzea, inpugnatutako erabakiaren edukia ezagutu duten edo ezagutzeko aukera izan duten egunetik egutegiko 40 eguneko epean.
- 2) Elkarteko gobernu- eta ordezkaritzako-organoen osaera, elkarrearen kontu-egoera eta elkarrearen jardueren buruzko informazioa jasotzea.
- 3) Elkarteko beste bazkideen nortasuna, diru-sarreraren eta gastuen egoera, eta elkarrearen ekintzen garapenaren berri edozein unetan izatea, datu pertsonalak babesteko arautegian aurreikusitako moduan.
- 4) Batzar orokorretarako deiak jasotzea, batzar orokorretara joan eta hitz egin eta botoa emateko eskubidea erabiltzea, eta eskubide hori beste bazkideren baten esku utzi ahal izatea.
- 5) Elkarrearen Estatutu hauen arabera, elkarteko zuzendaritza-organismoetan parte hartzea eta organo horietarako hautatzaile nahiz hautagai izatea.

- 6) Indarrean dauden legeetan zehaztutako bazkideen fitxategian agertzea, eta elkartearen ikurra, baldin badu behintzat, erabiltzea.
- 7) Estatutuen eta, egonez gero, barne-araudiaren ale bana edukitzea, eta zuzendaritza-organoei eskakizunak eta kexak aurkeztea.
- 8) Elkartearen talde-ekintza sozialetan parte hartzea, eta bazkideentzako tresnak erabiltzea (elkartearen egoitza, liburutegiak, eta abar).
- 9) Bazkideari diziplinazko neurriak ezarri aurretik, bazkideak idatziz adierazitakoa kontuan hartzea eta neurri horiek hartzea eragin duten arrazoiei buruzko azalpenak jasotzea. Neurriak hartzeko arrazoiak bazkideei dagozkien betebeharrak ez betetzean soilik oinarritu daitezke.
- 10) Edozein unetan baja ematea. Hala ere, hartu bai baina bete gabe dituzten konpromisoak bete beharko dituzte.

28. artikulua.- Bazkideen betebeharrak hauek dira:

- a) Elkartearen helburuekin bat etortzea eta helburu horiek betetzen laguntzea.
- b) Kuotak, derramak eta Estatutuen arabera bazkide bakoitzari dagozkion bestelako ekarpenak ordaintzea.
- c) Estatutuetatik eratorritako bestelako betebeharrak betetzea.
- d) Elkarteko zuzendaritza-organismoek baliozki hartutako erabakiei men egin eta erabaki horiek betetzea.

BAZKIDE IZATEARI UZTEA

29. artikulua.- Bazkide izateari uzteko arrazoiak honakoak izango dira:

1. Hil egitea (edo, pertsona juridikoen kasuan, desegitea).
2. Bazkidea bere borondatez joatea.
3. Zuzendaritza Batzordeak elkartetik bidaltzeko zigorra ezartzea, arrazoi honengatik: Estatutuetatik eratorritako betebeharrak eta Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak baliozki hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki behin eta berriz hausteagatik.

ZIGOR-ARAUAK

30. artikulua.- Bazkideek behin eta berriz hausten badituzte Estatutuak edo Batzar Orokorrak nahiz Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiak, Zuzendaritza Batzordeak bazkide horiek zigortu ahal izango ditu.

15 egunetik hilabetea bitarte eskubideak kentzetik elkartetik betiko kanporatzea izan daiteke zigorra, ondorengo artikuluek adierazitako moduan.

Horretarako, zigorgarriak izan daitezkeen jokabideak aztertzeko ikerketa egin dadila erabaki dezake lehendakariak. Ikerketaren instrukziogilea idazkaria izango da, eta berak proposatuko dizkio Zuzendaritza Batzordeari hartu beharreko neurriak.

Zigorra ezartzeko ahalmena Zuzendaritza Batzordeak izango du, idazkariak ez du horretan parte-hartzerik izango (instrukziogilea delako), eta zigorra ezarri aurretik interesdunari entzunaldia eskainiko zaio. Zigortzeko erabakia arrazoitu egin beharko da beti, eta erabaki horren aurkako errekurtsioa jarri ahalko zaio Batzar Orokorrari.

31. artikulua.- Bazkideren batek elkartetik kanporatua izateko moduko ustezko egintzaren bat egiten badu, hau da, Estatutuotatik eratorritako betebeharrak eta Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak baliozki hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki behin eta berriz hausten baditu, gertaeren berri izatearren, lehendakariak idazkariari agindu diezaioke aurretiazko eginbide zehatz batzuk egin ditzala, behar den informazioa jasotzeko. Eginbide horiek ikusita, lehendakariak jarduerak artxibatzeke agintzea edo elkartetik kanporatzeko zigor-espedienteari hasiera ematea erabaki dezake.

32. artikulua.- Elkartetik kanporatzeko zigor-espedientea hasten bada, idazkariak, gertakariak egiaztatu ondoren, idatzi bat bidaliko dio interesdunari, leporatzen zaizkion karguen berri emateko. Kargu horiei erantzuteko, interesdunak bere aldeko arrazoiak azaldu ahal izango ditu hamabost eguneko epean. Epe hori amaituta, edonola ere, Zuzendaritza Batzordearen lehenengo bilkurako gai-zerrendan sartuko da kasua, eta Batzordeak hartuko du erabakia. Erabakian ez du parte hartuko espedienteko instrukziogilea izan den idazkariak.

Elkartetik kanporatzeko erabakia interesdunari jakinaraziko zaio eta, era berean, hurrengo ezohiko batzar orokorrean errekurtsioa aurkez dezakeela azalduko zaio. Hiru hilabeteren barruan batzar horretarako deirik egiten ez bada, errekurtsioa ebatzeko batzarrerako deia egin beharko da. Bitartean, Zuzendaritza Batzordeak inputatuari bazkide-eskubideak etetea erabaki ahal izango du, eta Zuzendaritza Batzordeko kide bada, kargu hori utzarazi beharko dio.

Batzar Orokorrari kanporatzeko espedientea aurkeztuz gero, idazkariak espedientearen laburpena egingo du, Zuzendaritza Batzordeak interesdunak aurkeztutako idatziaren eta egintzen berri zehatza Batzar Orokorrari eman ahal izateko, azken horrek dagokion erabakia har dezan.

33. artikulua.- Kanporatzeko erabakia arrazoitu egin behar da beti, eta erabaki hori interesdunari jakinarazi behar zaio. Interesdunak, eskubideaz baliatuz, auzitegietara jo ahal izango du bere ustez erabakia legearen edo Estatutuen aurkakoa bada.
34. artikulua.- Bazkideren bati kanporaketaren berri ematerakoan —berak nahi izanda edo zigorra ezarri zaiolako— bete gabe dituen betebeharrak bete ditzala eskatuko zaio.

LAUGARREN KAPITULUA

SORTZE-ONDAREA ETA AURREKONTU-ARAUAK

35. artikulua.- Elkarateak ez dauka zortze-ondararik.
36. artikulua.- Elkarateak, bere jarduerak aurrera eramateko, diru-baliabide hauek aurreikusten ditu:
- a) Sarrera-kuotak.
 - b) Erabakitzen diren aldizkako kuotak.
 - c) Elkaratearen ondasun eta eskubideetatik datozen emaitzak, eta legez jasotzen dituen diru-laguntzak, legatuak eta dohaintzak.
 - d) Zuzendaritza Batzordeak Estatutuen helburuak lortzeko egin beharrekotzat jotzen dituen jarduera zilegietatik datozen diru-sarrerak.

Elkarate- eta ekonomia-ekitaldia urtekoa izango da, eta ekitaldia urte bakoitzeko Abenduaren 31an itxiko da.

Elkarateak, jarduera ekonomikoak (zerbitzuak ematea barne) gauzatuz lortzen dituen irabaziak bere helburuak betetzeko baino ez dira erabili beharko. Inola ere ezingo dira elkartekideen artean banatu, ez eta haien ezkontideen edota haiekin antzeko afektibitate-harremanean bizi diren pertsonen artean eta haien senideen artean ere. Ezingo zaizkie, halaber, irabazteko asmoa duten pertsona juridiko edo fisikoei doan laga.

BOSGARREN KAPITULUA

ESTATUTUAK ALDATZEA

37. artikulua.- Estatutuak aldatzea propio horretarako deitutako bazkideen ezohiko batzar orokorrean erabaki behar da. Zuzendaritza Batzordeak hiru bazkidek osatutako batzorde-txostengile bat izendatuko du, aldaketa-egitasmoa idazteko. Egitasmo hori Zuzendaritza Batzordeak ezarritako jarraibideen arabera

egin da, eta Batzorde berak jarriko du egitasmoa amaitzeko epea.

38. artikulua.- Aldaketa-egitasmoa epe barruan idatzi eta gero, lehendakariak Zuzendaritza Batzordearen hurrengo bilkurako gai-zerrendan sartuko du. Zuzendaritza Batzordeak egitasmoa onartuko du edo, bestela, lantaldeari itzuliko dio, berriz aztertu dezan.

Egitasmoa onartuz gero, Zuzendaritza Batzordeak hurrengo batzar orokorreko gai-zerrendan sartzea erabakiko du edo, bestela, horretarako propio batzar orokor baterako deia egitea.

39. artikulua.- Batzarrerako deiarekin batera, Estatutuetako aldaketen testua bidaliko da, bazkideek egoki iruditzen zaizkien zuzenketak Idazkaritzan aurkeztu ahal izateko. Zuzenketa horiek Batzar Orokorrari helaraziko zaizkio, batzarra egin baino zortzi egun lehenago jaso badira Idazkaritzan.

Zuzenketak banaka nahiz taldeka egin daitezke, idatziz, eta aukerako beste testu bat izan beharko dute. Zuzenketak bozkatu ostean, Batzar Orokorrak Estatutuak aldatzeko erabakia hartuko du, eta Elkartearen Erregistro Orokorrean inskribatzen denetik aurrera baino ez du eragina izango hirugarrenengan.

SEIGARREN KAPITULUA

ELKARTEA DESEGITEA ETA ELKARTE-ONDAREAREN ZERTARAKOA

40. artikulua.- Elkartearen arrazoi hauengatik desegin da:

1. Bazkideek hala nahi dutelako. Nahi hori horretarako bildutako ezohiko batzar orokorrean azaldu beharko da.
2. Estatutuetan finkatutako epea edo baldintza bete delako.
3. Beste elkarteren batek xurgatu duelako edo beste elkarte batzuekin bat egin duelako.
4. Legez ezarritako gutxieneko bazkide-kopururik ez duelako.
5. Epai irmo batek elkartearen desegitea agintzen duelako.
6. Elkartearen helburuak betetzea ezinezkoa delako.

41. artikulua.- Elkartearen deseginez gero, erabakia hartu duen ezohiko Batzar Orokorrak Kitapen Batzordea izendatuko du. Batzorde hori Zuzendaritza Batzordeko bi kidek osatuko dute eta dagoen diruaz arduratuko da.

Bazkideekiko eta besteekiko elkarte-betebeharrak bete ondoren, geratzen den elkarte-ondarea, geratzen bada

behintzat, irabazi-asmorik gabeko elkarte bati edo irabazi-asmorik gabeko ekimenen bati eman beharko zaio.

AZKEN XEDAPENA

Estatutu hauek garatzeko asmoz, Batzar Orokorrak barne-araudia onartu ahal izango du, baina horrek inolaz ere ez ditu Estatutuetako agindua.

